

veinte años murió de más de noventa en Escauriza, que es como si dijéramos la capital de Mendi-erreaka, me contó que cuanto él era muchacho todavía se decía allí, para ponderar la esplendidez de las bodas: «Han sido las bodas de Aranguren.»

ANTONIO DE TRUEBA.

## ¡IPARRAGIRRE!<sup>1</sup>

«Maxima debetur poetæ reverentia.»

### I.

¡Iparragirre! Ikusten zaitut  
Oraindik ere mendiyán,  
Nola zuazen, Homeroen gisa  
Kantatzen bide guzian:  
Ikusten zaitut oraindik ere,  
Alako lira tristian,  
Onen soñubak zabalduz  
Bi mundubaren artian.

Ikusten zaitut nola zuazen  
Gitar sar baten laguntzan,  
Onekin negar, onekin kanta  
Egiñikan bat batian:  
Bañan samíñak izana-gatik  
Franko zure barrenian,  
Zure malkoak Chukatzen dira  
Onen soñu samurrean

¡Iparragirre! Orrengatikan  
Nere barrenak nai dizu  
Oroitx bar zuri guztiz gozoa  
Biotzetikan moldatu;

Odola daukat euskaldunena,  
Eta zañak zaizkit sutu,  
Nere izate guzti-guztiyak  
Nai dizulako donkitu.

### II.

Neguko egun otz beltz batian  
Chorien kantik gabian,  
Chimist zorrotzen argi autsien  
Isiltasunen erdian,  
Antsi batzubek ziran sentitzen  
Baserri baten atian,  
Ta irikirik arkitutzentzan  
Mutill gazte bat aurrian.  
Eche barrenen sartu ta gero  
An su ondoan jarririk,  
Lana bazuten onen gosia  
Iñola ezin aserik;  
Onek zituben begi alayak  
Berez argiya izanik,  
Masallak berriz zuri-gorriyak  
Amalau urte emanik.  
Erreparatu ziotenian  
Nolako gustora zegon,

(1) Composicion premiada con *mencion honorífica* en el certamen literario celebrado por el Ateneo científico y literario de Vitoria.

Nausiak zerbait jakin nayian  
Galde ta eranzun zion:  
—Mutill ¿zér abill orren gazterik,  
Nundik ator oneraño?—  
—Amari echetik itzul eginda  
Orla nabill oraindaño.

. . . . .  
. . . . .

### III.

Außen zan bada Iparragirre  
Aterazana echetik,  
Ontzi bat juango balitz bezela  
Lemikan gabe kayetik:  
¡A!... Bañan nola sentitzen zuben  
Zerbait aundi chikitandik,  
Gorputz chikiko biotz aundiak  
Etzion eman pakerik.

*Gaztetan-dikan* zion bezela  
Orla azi zan munduban,  
Andik onera beti ibiltzen  
Antziñatarren moduban.  
Lore bat azi-tzendan bezela  
Belar tartian soruan,  
Alaßen ere zure bertsuak  
Jayotzen ziran kanpuan.

Nola ez bada ¡Iparragirre!  
Nola ez bada oroitu  
Gaur euskalduna, zure-gatikan

Baldin bagera bizitu?  
Zenbait etsayen indar sendoak  
Diradenian azaldu,  
¡Iparragirre! zure kantakin  
Egin ditugu banatu!

Ibildu ziñan zenbait denboran  
Euskal-erritik urruti,  
Penaz autsirik osasun dana  
Samintasunez ugari;  
Deitutzen zion zure barrenak  
Jayo ziñan erriari,  
Aur batek nola deitutzen dion  
Urrutitikan amari.

Erreguturik Jaungoikoari  
Biurtzeko lur maitera,  
Zure chokora etorri ziñan  
Azken agur egitera:  
¡A! Nunbait Jaunak sariztatzeko  
Eraman zinduben gora,  
Jayo ziñaden seaskatikan  
Gure-gandikan Zerura.

Gizalditikan gizaldiara  
Laja ginduzun otoitza,  
Bizituko da, bizitu dedin  
Gernikan degun aritza;  
Ez da mantentzen dagoelako  
Gañian goizeko intza,  
Baizik zañetan dakarrelako  
Iparragirren oroitza.

FRANZISKO LOPEZ ETA ALEN.

